

SALTOKIAN

NOLA JOKATU DEMENTZIA DUEN PERTSONA BATEKIN



POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL




Adinekoek hurbileko saltoki txikietan egin ohi dituzte erosketak. Kasu askotan, pertsona horiek zailtasunak izaten dituzte erosketak egiteko, mugikortasunagatik, entzumena edo ikusmena gutxitu zaielako edo adinari lotutako narriadura kognitiboren batengatik.

Hori dela eta, saltokiak eta saltzaileak profil horretara egokitu behar dira, baita haien arreta eta zerbitzuak pertsonalizatu ere, hau da, adineko jendearekin lagunkoia eta solidarioa den merkataritza bilakatzea.

Zer egoera sor daitezke?

- Ez dakite zergatik dauden han.
- Ez dute gogoratzen nola iritsi diren.
- Ez dakite zer erosi behar zuten.
- Bakarrik eta nahastuta sentitzen dira, galdetzen ausartu gabe.
- Ez dute gogoratzen erosketak nola ordaindu.
- Ez dakite bakarrik etorri diren edo norbaitekin dauden.
- Produktu berdinak erosten dituzte behin eta berriz.
- Ez dute gogoratzen txanda hartu behar dutela.
- Argibide lausoak emanez saiatzten dira produktu bat eskatzen, ez baitute haren izena gogoratzen.



Laguntzarik behar duen antzemateko jarraibideak

- Komunikatzeko zailtasunak baditu, izan pazientzia eta eman denbora, urduri ez dadin.
- Zer erosi nahi duen badaki baina hitz egitea kostatzen bazaio, lagun iezaiozu ohiko erosketa-produktuak eskainiz; horrela, errazago gogoratuko du zer behar zuen.
- Eskudirutan ordaintzean txanponak ezagutzeko arazoren bat badu, lagundu ordainketa egiten, eta gogoratu erosketaren ordainagiria eman behar diozula.
- Baliteke ahazten zaiola txanda eskatu behar duela bai erosteko, bai ordaintzeko; halakoetan, esan iezaiozu, ezti esan ere.
- Ahal baduzu, lagun iezaiozu erosketa osoan zehar, eta, ezin baduzu, eskaini leku seguru bat haren txanda iritsi arte.

Nola joka dezakegu desorientatuta badago?

- Desorientatuta badago, familiarekin edo segurtasun-kidegoekin harremanetan jartzeko unea da, ahal bada.
- Zerbait behin eta berriro erosten badu, gogorazi jadanik erosi duela, eta eman horren berri familiari, ezagutzen baduzu.
- Aurkeztu zeure burua gizabidez eta galdetu zerbaitetan lagundu ahal diozun.
- Hitz egin iezaiozu ezti eta lasai, egokitu diskurtsoa pertsonarengan. Ulertzen ez dizula ikusten baduzu, erabili esaldi laburragoak eta sinpleagoak.
- Ez hasi liskarrean, eztabaidatzeak ez baitu lagunduko arazoa konpontzen. Ulertzen ez zaituela edo urduri dagoela ikusten baduzu, esan familiari, ezagutzen baduzu; bestela, deitu poliziarri.
- Ez erabili hurrekin erabili ohi den tonua, ezta tonu paternalista ere, umiliatua senti bailiteke. Egokitu diskurtsoa, betiere errespetutik.
- Ez erabili esaldi negatiborik, hobe da positiboki komunikatzea.
- Batzuetan, desorientazioak eta urduritasunak berak agresibitate pixka bat eragin dezakete; halakoetan, saiatu lasai egoten, utzi barrena hustu dezala eta saiatu entretenitzen, gaia aldatuz adibidez: non jaio zen galdetu, gauza alairen bat esan...



Informazio gehiago:
www.ceafa.es/entornos-amigables

INGURUNE LAGUNKOI
ETA SOLIDARIOAK
DEMENTZIEKIN



**CONFEDERACIÓN
ESPAÑOLA DE
ALZHEIMER**